

# LEHIAKIDE SOLIDARIOA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

**MARÍA** telebistako lehiaketa bateko finalista da. Hiru aste gogor egin ondoren (proba fisikoak, kalkulukoak, estrategiakoak, orientaziokoak, trebetasunekoak...), **MARÍA**ren lehiakide guztiak kanporatu dituzte, astez aste, bata bestearen atzetik. Orain, lehiakide bakarra geratzen zaio. Azken erabakia epaimahaiari dagokio. Programaren aurkezleak bi finalistei eskatu die epaimahaiari esateko zertan gastatuko duten saria irabazten badute.

**MARÍA:** (Teatral) Beno, hor doa nire hitzaldia. Oso errespetagarria iruditzen zait lehiakideak lehiaketako super saria gastatu nahi izatea esan dituen gauza horiek guztiak erosiz: kirol-autoak, etxetzarrak, super-luxuzko hoteletako super oporrak, gurutzaldiak, arropa garestia eta esan duzun guzti hori (Ondora begira). Oso errespetagarria iruditzen zait, izugarri gustatzen zait. (Epaimahaiari) Izan ere, nik gauza bera egin nahi dut: lehiaketako super sariaren dirua gastatu nahi dut zoriontsu egiten nauen horretan. Nire kasuan, zoriontsu egiten nau behartsuenei laguntzeak. Jende asko dago gosea pasatzen hiri honetan, ez sinistu arren. Askok. Benetako drama sozialak daude, hemen bertan, ertetik itzultzean. Zuek botoa ematen badidazue, epaimahaiko jaun-andreok, eta super saria irabazten badut, diru guztirekin egingo dudana, "8. sektoreari lagundu" kanpainari emango diot. Ekarpem garrantzitsu eta historiko horren bidez, bi urte osotan hiru mila familia jan ahal izango luketela kalkulatu dut, eta ur, elektrizitate eta hainbat mantenuerentzako erantzuneko liekete, hala nola haurrentzako arropa, hezkuntza, txertoak, etab. Nire aurkariak eta biok oso lehiaketa ona egin dugu, eta, zalantzarik gabe, biok irabaztea merezi dugu. Pena da biak ezin irabaztea. Orain erabakia zuen esku dago, epaimahaiko jaun-andreok. Nor ateratzen den irabazle erabaki behar duzue. Mila esker.

**OHARRAK:** **MARÍA**k egiten duena xantaia emozionala da. Egia esan, ez du txarrik sari bateko dirua norberak nahi duena erosiz gastatu nahi izatea, baina **MARÍA**k badaki ezen, kausa solidario batera joatean, bat-batean, aurkariaren diskurtsoa apetatsua eta ez solidarioa dirudiela. Eta horrek emango dio garaipena lehiaketan. Ez dago zalantzarik. Diskurtsoa esan ahala, **MARÍA** handituz doa, aurkaria pixkanaka nola uzkuratzen den ikusita.

Ele txera  
Hiru aste zabalduz



# LEHIAKIDE SOLIDARIOA

Marc Egea

Eusk: Ele txera

Monologoa umoristikoa da, teatral egiten den neurrian. Eta benetakoa izango da. Kontuan hartu behar da **MARÍA**, telebistako programako lehiakidea, "lanean" ari dela epaimahaiaren aurrean. Aktore oso teatrala da. Beraz, casting batean bakarrizketa hau interpretatzen duen aktoreak bi mailak hartu beharko ditu kontuan: paper bat antzezten duen emakume baten papera antzeztu beharko du.

Ñabardura bat erantsi nahi bazaio: **MARÍA**k, hitzaldia emateko unean, argi eta garbi daki ez diola saria ongintzako kausa bati emango. Horrek zinismoz leuntzen du interpretazioa.

Ele txera  
munduarek zabalduz

